

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A



Ezkerrean, Delfoseko aztarnategia. Horren alboan, aztarnategian bertan eraiki zuten museoko piezetako bat.

Delfos, iragarri gabeko etorkizuna

KASTRI, GREZIA, 1893. Herrixka horren azpian Delfoseko arrastoak industen hasi zen espedizio frantziar bat. Antzinako Greziako gune erlijioso eta politiko nagusietakoa zena, indusketa arkeologiko ikusgarrienetakoa bilakatu zen orduan.

Erromatar inperioak behin eta berriro arpilatu zuen Apoloren jaioterria eta, azkenean, Teodosioren garaian (K.o. IV. mendean), Delfos historiatic desagertu zen. Hamabost mende gerago, frantziarrek kostata lortu zuten orakuluaren hiria argitara itzultzea.

Izan ere, aztarnategiaren maila arkeologikoetara iristeko, Kastri herrixka desagerrarazi behar zuten lehenago. Soilik Frantziako gobernuaren erabaki batek ahalbidetu zuen hori; 1891n 400.000 liberako kreditua –kopuru izugarria garai hartan– onartu zuten Kastriko biztanleei ordaindu beharreko kalte-ordainak berdintzeko.

Herrixka suntsitu eta gunea trenbidez josi zuten, milaka metro kubiko lur eta hondakin handik eramateko bide bakarra zelako. Ehunka greziar langilek jardun zuten Eskola Frantziarreko kideen aginduetara, aztarnategia prestatzeko. Baina azkenean, indusketak itxaropenik baikorrenak gaudituz zituen.

Indusketa lanek *Via Sacra* delakoaren bidea egin zuten, hots, Delfosera

iristean beilariek egin ohi zuten bidea. Berehala eraikin txiki bat topatu zuten, atenastarren altxorra. Ondoren, Sifnioen altxorra, antzokia eta Apoloren tenplua agertu ziren, eta horietan hainbat eskultura, besteak beste, Delfoseko brontzezko auriga ezaguna. Azkenik, aztarnategiaren goiko aldean estadioa topatu zuten eta Apoloren tenplutik gertu, beste santutegi bat, egun *Atenea pronaita* izena duena.

Via Sacra bazterreko hormatan, estatuaren oinarrietan, aztarnategi osoan barreiatutako harri zatietan, edonon inskripzioak topatu zituzten arkeologo frantziarrek, gehienak Apolori eskerak emateko bisitariak idatziak. Beste batzuek egun oraindik guztiz interpretatu ez diren musika notak zituzten. Azken batean, Delfos harrizko liburua bailitza zabaltzen zuten.

Frantziarrek museo bat eraiki zuten bertan eta, zabaldu eta berehala, 1903an, ekitaldi ospetsu baten bidez, aztarnategi osoa greziar agintarien esku utzi zuten. Lagapena bidezkoa eta logikoa izanagatik, ezohikoa zen. Eta ezohikoa da oraindik. Baina behintzat Delfoseko altxorrek hantxe daude, eta ez Mendebaldeko museo eta enkante-etxeetan barreiatuta. Alegia, ez da orakuluak aurreikusiko zukeen etorkizunik txarrena.

Arrastoak

Berlusconiaria gehiago

ORAINGOAN, Italiako presidente Silvio Berlusconi ondare artistiko eta historikoari egin dio iseka. Chigi Jauregian, Italiako gobernuaren egoitzan, Giambattista Tiepolo (1696-1770) margolariaren koadro bat dago, *Egia, denborak biluztua* izenburukoa. Presidentearen nahiz gobernuko beste hainbat kideren prentsaurreko agerpenetan, koadroa ikusi ohi da atzean, Egiaren bular biluzia ageri den zatia, hain zuzen. Bada, artelanarenganako inolako errespeturik gabe, belo bat margotu diote bularraren gainean. Berlusconiaren aitzakia: herritarrak minduta senti zitezkeela. Bitxia da, ordea, presidentea orain arte bere telebista kateetan emakumeek eta, zehazki, estali berri duen gorputz atalak jaso duten trataeragatik kezkatu ez izana. Behar bada, obraren izenburuak eragin behar lioke kezka. Denborak egia agertarazten duela, alegia.



Silvio Berlusconi, Italiako presidentea, bere erabakiaren ondorioak harro erakusten. Giambattista Tiepoloren obrak, lehen, bularra agerian zuten.